

Mirande 'taf Jon

21 POEMA

MIRANDE 'TAF JON
tannas del papel es como ate

ARKHIBIDEA

0	HITZAURÉ ANTZO	
1	MAITARZUN	
2	NESKATXAK	•
3	IAUREGI HOTZEAN	
4	AMETSETARIK	•
5	PIGALLE	•
6	ILHUNABAREZ	•
7	OIANONE	•
8	AKHELARE	
9	IFELAK	•
10	ORHOITUZ	•
11	ERESI	•
12	LILI BAT	0
13	ZERBATIK	
14	HARIZKO IAINKO BATI	
15	ORZI-REN TTUNTUNA	•
16	OHIKO IAINKOARI	•
17	•NIL IGITUR MORS EST •	•
18	UNDINA	•
19	OTSO	
20	ITXASUNTZI ZAHARA	•
21	ZAKHUR HIL BATI	•
	BEHIAK	
22	•PARANOIA	
23	LARUNBAT-ARATS	•
24	KAMA - GOLI	

HITZAURÉ ANTZO

Adiskide batek eskatu deraut ene euskal-olerki, aldizkarietan han-hemenka argitarazi edo orain arteo argitarazi gabekoetan haukera egin eta neure usteko hoberenak bilduman eman ditzadan, Euskaldun irakurleak iañarian dasta ta goza ahal litzantzat . Irakurle maiteak asko gozatuko dituenetz zalantzan nago ... Halarik ere, eskatu izan zaitan bezala egin dut eta hor' doazkitzue, beraz, nire " 24 Poema " hautatuak .

Zergatik idatzi ukhan ditut ? Gogoak hala eman zerautalakotz nabaski. Behin Euskaldun -eta- Fededun batek hauxe egotzi deraut -Erderaz, iakina; egoki denetik, euskaraz ez baitzakien...-: "Uste al duzu Euskara ta Euskadi gaizkatuko dituzula, olerki pantheistak idatziz ??" Ez, Jauna, ez dut hori uste. Daukat Euskara ta Euskadi gaizkatzea bere lehen io-muga ukhan behar lukeela Euskalheñitar iathor' orok; ene aldetik, io-muga hor'en irixtekotz, guduka guztietara gerthu nago (gudukiderik non, ordea ?) bainan, neurthizketan dihardudalarik, bertzerik dut gogoan : oroz lehen nihauren eta gogaide bakhan batzuen atseginerako idatzi ditut ene poemak -hots- "for the happy few" . Aithor' dut poeta on batek, den pantheista ala papista, ez dakharkeola heñiari.... pelotari on batek baino onura gehiagorik . Hain zuzen ere, ene neurthitz ok ez ditut onurarako eginak, solhazerako baino ; zilhegi baitzaiku noizik behin io-muga gurenak aldebat utzita solhazik nolaerebait bilhatzea .

Nire poema hauk irakurri ondoren, bildur' naiz zenbaitzuen bizañ veneragariek asañearen asañez zutituko zaizkidala, dena lizunkori eta blasphema merke naizelakoan . Zer nahi duzue ? Ene asmoak, ene ametsak, ene ohar'तिकasiak har'tu ditut idazgaitzat, idazle guztien ariora. Balaiteke zuenak bezain argi ta garbiak ez izaita. Txit nigar'egingar'í zait bainan... neureak dira eta atxikia natzaie .

Neholaz ere ez nuke nahi, haatik, zuen bihotz aratzak ni naizela zio urdint litezen. Hori itzur-ehi da, ordea : aski duzue ez irakurtea ; ez natzaizue batere aiher izanen !

Mihi gaiztoek, aldiz, erasiko bide dute Euskaldun antz handirik ez dutela nire olefkiok. Egia dateke ; behar ba da, euskaldunago agiriko zan, efaitorako ene "Iauregi hotzean" , hunelako laukoetan eman ukhan banu :

"Oi ! zer bihotz-min eta zer zorthe tristea

Ezkon-beñi batentzat senhaña galtzea .

Nigaretan urtzen da oi ! andre gaztea .

Ufikal zakiola Jainko Jaun maitea ! " e.a.

Norberaren dohainen araura ari behar eta, bertsojaritza uzten derauet antze hortarako iaio direnei . Hořegatino, ene olefkitxo bitxi ta minkor hauk Euskaldun batak edo bertzeak adimen eta irudimen-atsegingari eridenen dituelako itxaropena edukiten dut .

Mirande'tar Jon'ek .

M A I T A R Z U N

✂

Ekhia iaiki zeneko
Neskari muthil bizkoñak :
"Nehoiiz ezhaut ahantziko !"

✂

Ondikotz ! Haize gogoñak
Hoñbelak iroaiten ditu
- bai eta ein ezhilkoñak

✂

Zenean ekhia sañthu
Bertze batekin gñtz-hañtu
Zuen, bethi maitatzeko .

N E S K A T X A K

Neskatxak, maite zituztet ,
hamabortz urtheke neska
- haúr segailok, gazi - gezok .

Zuen begi - aintziretan ,
ezinbertzez gainbetheak ,
hondatzen naiz, ithotzen naiz

Neskatxak, zuek zarete
ezti gozo, esne, gari
ene gose handietan.

.....

Ba zabiltzan
ahizpa gazte bi dantzan
(zein eremutan, ahantz dut...)

Heien beso luze - luzeek
niri eresiz ziostaten
ziraun - poema samin bat .

Ur - ezpondan biak zeuden
elkhañi lastanka, maitez
bulhañ zuriak ikhara,

iztañ guriak ihesi .
Soñthu orduko urtzen zan
ene gogorapen oro .

...../.....

...../.....

Han, palmadoi korlegian
gogoan nerabiltzanak
ezin eranak dirade .

Han, palmadoi pherde hartan
erori ziran neskatxak
elkhañen besoetara .

.....

Non zan hori ? Zer egun zan ?
Ala dena gau - amets bat
izan othe da bakhañik ?

Heriminez, ezin - minez
erdiratzen zait bihotza
arats luzetik goizera,
lo - gabea .

IAUREGI HOTZEAN

Iauregi hotzean
aitoren - alhabak
nigar' dagi.

Goizetik ioana da
zalduna gudurat
-Noiz datho'keñ ?

Mendietan elhur' ,
\aizeak urduri ,
zeru goibel.....

Egunen luzea
bakhar'-bakhar'ikan
othoitzetan !

Elhur'te zurian
zenbat odol-istil ,
odol urdin.....

Nasaiki ian dute
hilbeltzeko zakhur'
gosetuek.

Nafar' iauregian
andere gazte bat
beltzez iantzi.

A M E T S E T A R I K

Nihaur gauerdiz nintzan barda,

Bihotz hotzean elhur - min
Amets-bideetan galtzen nintzan

Ez ba zinan, maiṭea, iin,

Ez ba zinan arimaz heldu

Haragiz nintzelarik lo .

Lotarik zure begi bliia

Ezagun nizün eni so ,

Et' ezpainenetan zure ezpaina,

Potka... Orduan ~~z~~atzarri naiz :

Nihaur nindüzün berriz ere....

Zertako, ai, ~~z~~atzañi naiz !

P I G A L L E

Raymonde tri.

Zohardi zan ,
Pigalle-zeruan izañak
phiztu ziran
-puten sabelean arno beltza botz-kantuz .

Nihaur kaleetan
aitzina, horditu ezina
puten arno kantariaz....
.... egari,
zure bilha, Raymonde
gabats edera, baraz bar.

Raymonde, soin humoa, mahats humel
Pigalle-ko mahastietan ,
arno indazu nire ahorako
zazpigaren goian izañak
dakhuszkidan !

1951

I L H U N A B A R E Z

Gelatto zuri garbian

Neska dago

Ilhe goñien orazten,

Ilheak ilhunabañez

Goñiago.....

Gela ixil - ixilean

Zerk derauko

Begi zohararak beltzitu *)

-Athean io du norbaitek,

Hor dirausko

(Mintzo ahal, ahopetik) :

"Neska gazte ,

Ni naun beriz ethoñita,

Aren, ideki ezadatu

Bai haut maite.

Ni naun, zaldiz ethoñita,

Nire kutun,

Hurundikan, hain hurundik !..."

Haren biotzak ordea

Ez du entzun.

~~Neska - gelatto zurian~~

Neska - gelatto zurian

Bera dago,

Gau-itzalaren bilduz

Haren begi zabalegik

Zabalago.....

1950

O I A N O N E

" Munduan ezta gauzaric
hain eder ez placentic
Nola ematia guigonaren
petic buluzcorriate *
(Gossen Bernat Betchepare Aphez

Gelan sarthu ginenean
Gauerditan, ilhunean,
Mundua egin zan mutu,..
Zuten izaiek kantatu
Biok etzan ginenean .

Oianone ! Oianone !
Gau hunetan zaitut ene ;
Laru legun eta zuri,
Bulhar samur, sabel guri,
Nire neska Oianone .

Ezti bakhanez bethea
Zure matxantto maitea
Urtzen zan ene ahora,
Zabalik lore antzera
Eta gozokiz bethea .

Zure baratzeko borthan
Arroz batek io du, Bertan
Sarbidear emaiozu
Zama bat bait^hakar pisu,
Ezdezazula utz borthan !

Gauko oihanetan lasterka
Zure gainean zaldizka,
Behor zalhu eta bizkor,
Gau-bidetan gaindi, mozkor
Banaramazu lasterka .

Ezpain likhits, esku lizun,
Atseginetan iakintsun
Bulhañetik belhaunera
Haragi biok ikhara,
Iauzten zaitut, neska lizun !

Hiltzen naizela dirudi :
Batetan mila su-ziri
Ene burmuinetan sarthu ...
Botz-uhinak uzten gaitu
Hilik garela irudi .

Egin du iri Ilhargiak ;
Hesten zaizkiola begiak
Neskatilak eraiten dau
Eskeñ onetan othoitz haur,
Dantzularik Ilhargiak :

"Gora izan hadi, Suge ,
Hi haizenik ene Rege,
Hi haizenik ene Iainko
Gau huntan eta bethiko ,
Urhe-buztaneko Suge !

Hathor'kit beriz laztanik ;
Ianhari gozo ba'dut nik
Ene baratzean are
Ezti gehiagorik Hire,
Bil ezak beriz laztanik. "

Suge laztana nekhatu
Zan, ordea, loak hartu...
Ezti-loreetan etzanda
Atsedean hartzen ari da ,
Gaixoa baita nekhatu .

Ene maitea, moxu bat
Has dezantzat bertze hainbat !
Sugea baitatza lotan
Inda'ren bihurtzekotan
Oi ! emaiozu moxu bat

A K H E L A R E

Kampoan gauerdi ,
horstoen firfira
- auhen bat dirudi .
Izarák non dira ?

Kampoan ilhuna :
nehon ez argirik
ikhara, ilhuna ,
zuziena baizik .

Akhe' hil bat datza
bere odolean
Sorginak dabilta
leize hozpelean .

Dathorkeieneko
urhezko thronu bat
su-au'ean dago
Aingeruarentzat .

Sorginen leizean ,
lizun, bilhuts-go'i ,
bilhoak haizean ,
neska bat dantzari....

...../.....

0. 20
Euskal-neska leñden

oin - beso arinak ,
zugañ du atsedea
Satan nagosi onak !

Io 'zazute txistu
eta dambolinak ;
egizute kantu
gauazko Reginak :

"Argi - Ekharlea
goresten zaitugu .
Geure zaintzailea ,
gaur hel zakizkigu !"

.....

Emeki, politki
sugarak dira hil ,
gau beltzak baitaki
dela goiza hurbil .

Sorginak itzali ,
dantzak hanaitu-ta .
Oilañen azali
ezagun... Goiza da .

I G E L A K

Aintziko urerat
ilhargi-laurden bat erori zan
zuri, iori,
gauko zitu zori :
igelek ian dute, igeltto igeltzariek .

Oraia, beriz,
intzirika dagoz igel, igelttoak
igel, igeltto xoroak

Gau-minean
aintziko igelek dute, ai ei !
ilhargi-min .

1950

H
 O R O I T U Z

Zaldi beltzak irintzika zeuden ;
Sutan ziran inguruko zelhai
Gorak. Hartzen genuen atsedea ,
Alhargunen intziriez alai .

So ziraden, bekhaitz, saiak oro
Giza-hiroz ok-egin beharez .
Garoetan neska sabel nara
Zaurituen odola nigarez....

Gau ioriak zithal hotz zerion :
Geure bihotz-min-gai 'ta zorion
Orhoitua gizaldiz gizaldi .

Lagun ! Hilkañ-lore-baratzetan
Genbiltzanok, ilhargi zuritan ,
Noiz dukegu,diztirant, Eguerdi ?

1950

ERE SI

Ai neza gal bizia goiz batez,
Iskiludun, ixil eta zutik
Gudian, lur zahar hunen maitez,
Mendietan, etsaien eskutik .

Ai nendi hil gazterikan, nihaur,
Ikuñinik et' ikuñik gabe ,
Ezpainetan othoitzik ez, burhau -
Itzalik ez, baikor, ez herabe .

Ai nitza gal hats, arima, odol
Hiretako, ene iainko-eidol
Zahara, Lur ! mendi-gudu baten ,

Iguzkiek inguruz inguru
Nire soin haur, beriz sor haiduru
Hiretan lo, garrez io lezaten .

L I L I B A T

Loretan dago aspaldi huntan
gure begien eder delarik ,
gure bihotzen gorotzak baitu
ongariztatu et' ernarazi .

Eder da... Haren hatsak, ordea,
zithala badu, herio-hazi :
ilhuntzen ditu gogo argiak ,
ilhauntzen ditu argiak oro .

Hilheri-lili hořen zithalak ,
hezur zaharen hautsak hazirik ,
erhanik ditu aiten leinuak
eta zainhiltzen gaitu semeok...

Lili haur ene landetan ere
aspaldi huntan ezin hila dut ,
nahiz Ipharak astintzen duen ,
nahiz kiskaltzen duen Hegoiak ...

Ai ! goragotik ethori - haizeek
ailezate io ene landetan
et' eihararaz "itxaropena"
izena duen zithal-lili haur !

Z E R G A T I K

Zergatik ikasi
ahantzekotz gero
ikasiak oro ?

Zergatik ikhusi
hainbertze luñalde ,
hainbat, hainbat gende ?

Ezer ezin eutsi....
Zergatik laztandu ?
Zergatik higuindu ?

Bihar' edo etzi
ni non naiz izango ?
(Ai, ez naiz ordongo ,

Nigar' dagit asko
soin-^{ta} bihotz-minez,
- ^{iruzaki} gauzetako minnez)

Zergatik, zertako
- nork eranen eni ? -
hemen...hor'... han... ni... ? (ni?)

HAIZKO IAINKO BATI

(Sukellû Kantalon)

Hunat gau' beriz gathorzen Heure ganat
Basoihaneko Iaungoiko haizkoa .
Heure loaldi luzetik atzari haiz ,
Mailu-baheak daduzkak esku banan .
Bainan gizaldi huntako gizattoak
Heure Zuzentzaz ezdituk gogoratzen ...
Lehen, luraren gaztaro-egunetan ,
Itxasgorira ekhia zioala ,
Hilgai otsanak, haiztoaz hil-erhanak
Hire hituen haizko aldaretan .
Ekhusak ! Iauna + harzara, haiztodunik ,
Hof gaituk, lehen ginenak Hire seme .
Basoihanean ginenaz orhoit gaituk ;
Hilgai beririk badukek aldarean ,
Esku aratzez hiretzat guk erhanik .
Ekhi zaharek inguru egin die ,
Goizalde gazte hunetan iaiki hadi !
Heure bahean gizonak baha itzak ,
Heure mailuaz io ezak etsai oro ;
Guri, Aita On, emaguk indar eta
Gure kastari Sirats on betirako .

ORZI-ren TTUNTTUNA

Orzi-ren ttunttuna dabil soinutan
Ezerezaz gaindi rhythmua heda.
Huna ! ttunttunaren dantza-hotsetan
Ezereza uhin bilhakatu da.

Soinu-uhinetan agertu-eta
Biraldatuz doa izaiki oro'
Ttunttunak jo arte dantzaren beta :
Tiaio 'ta hoñ-izari eta igaro.

Hotsaren uhinek darabiltzate
Izaiki guztiak goiti behera,
Lehen goizetik gaua hel arte :
Bethi berdin dira, nehoiz ez dira .

Orzi dantzariak ttunttun-hotsetik
Ixuri daroaz suzko uhinak ;
Izaiki bakhoitza iragaitetik
Ikhuz bitza suon bere orbanak .

Iainkoaren esku ezkerretikan
Sua itzali da eskumaldera,
Izaikiak oro suzko errekan
Iragaiten dira, beheiti gora .

...../.....

Bethikotz soñtzen du ttunttunak uhin
Iragaitza hunek bethikotz dirau ;
Halatan hoñ-izan den oro, behin
Hoñ-date beñiro, lehen zen arau .

Bainan ttunttun-hotsak urñena duke :
Gaua hoñ dathoñ, sua erhandu.
Izanen da beñiz bethiko bakhe ,
Uhin lilura hamaituren da .

O H I K O I A I N K O A R I

Eli, Eli,
Lamma - sabakthani ?

Iosu bar-Ioseph, Nazarethen zinaudelarik
Templu-heipean itzal eta hitz emaiten,
Oi zergatikan hor' etzaitu Iudu zâr batek,
Iudako zuhain gazte hori, io 'ta moztu !

Iosu bar-Ioseph, ebili naiz zure elizetan
Ezkoen suan bihotz soñ haur sutu nahiz
Nuen orduon, Rabbi, zure baithan sinhesten
(Eta ondikotz ! aingeruen baithan ere....)

Iosu bar-Ioseph, ikasleak zurekin ziran
Zuk ereitean nola gari goi-elheak -
Ni ere izan nauzu mintzo nire anaiei ;
Bainan anaiok eñan dute hitz haur : "Ertzo"

Iosu bar-Ioseph, badut othoi egin gauerdiz,
Argizagia begi makhuñ so zan etoi -
Eta zuk aldiz utzi nauzu.... Zergatik añen ?
Zergatik añen, on hotsezko Iainko Iosu ?

Iosu bar-Ioseph, badut burhau 'in zuri aitzi :
Bihotzean osk bainituen zazpi ziraun
Zeure munduon soilik nago -edozein zakhuñ
Zoriontsurik bizi da ni bainoago .

..../....

Iosu bar-Ioseph, deithu zaitut haizeen ar̄tetik

Hilbeltz erdiko gauhil hartan zurtz eta zut,

- Argizagia ezpain hertsi pārez zegoen -

Zeure zerutik deus ez duzu ihardetsi .

Iosu bar-Ioseph, gaztaroan maite zindudan .

Maitakeri hark noradino nau iroan.....

Gaur̄, Indu-seme, gutar̄tera itzul bazinde,

Gurutzifika zindezaket nik ostera !

1951

"NIL IGITUR MORS EST..."

Oi uda-egun azkendu haur !
Kirol- ez, haurek zahar-anets...
Athetan, haatik, maitaleak....
... egia dela ustez . Ala
nik duta uste, aratsetan ?

Maitez gor, gautar maitaleok :
gizenden landa-baratzetan
beleak dagoz, hitz-egile.
Karikan haurok, zaharagi:
alhan da hara zituetan .

Itzalak gelan izigari ;
hots eta hitzak, arago .
Despotês, hel ! Hel ! Sinheslegai
egun bainago -beldur handiz !
-Deiok ordea alphetan.

.....

Bakhea in da. Nondikoa ?
Niago utzi ahal naute
bi iaingo-bele ahantziek
-mirariz hitzak, zergari txar
zirenak, itzalgarazirik- ?

...../.....

...../.....

Tai eder^é neure iauregian
liburu benak hertsia-eta,
zuhur^é izanak gutiatsiz ;
mintzo dut ezen niagoan
-ez hemen, ez gau^é- ez-iainko bat.

Gizendak eri zirelarik
Bizi-min^é deithu minbiziaz,
mintzo zan, ixil, ez-iainkoa ;
"Deus ez da" zion "herioa :
EZ dena EZin daiteke hil ."

Et' EZak oro zituen io :
hiria, hau^éak, maitaleak
-eta botz neukan bihotzean ,
hil-beldu^é deithu gezu^é-minaz
gizendak eri ziradela .

U N D I N A

Itxaso urunen harminietan
uhinen alhaba iaio zinaden .
Geroztik zabilta zure orhoitzan
izaro gardenak ezin eriden ,

Eguerdi handiko iguzki - sapak
ere izaroak . Hegoialderantz
itxasneskak dantzan -zure ahizpak-
diardute hantxe, baina zuk ahantz ...

Eta, dela hantxe zohardi thipil
uhin geldituen gainen, gauetan ,
itxasneskak oro, elkhar maitez , bil
daitez leihorerat argizaritan .

Zuk ahizpen dantzak utzi dituzu ,
irikaz iin zara izotz - aldera ;
elhur, iphar-haize, gaupe odeitsu
hor dituzu : gure ganat iin zara .

...../.....

..... /

Geroztik zabilta gure iphar^{ta}
itxaso hotzetan . Noizetik behin
beha zagozkigu, bihotzean har^a ;
eta guk so ' ginda ba zoaz arin ,

Ontzitan ia^{ra}ikiz gizon - aetsa ...
... bainan alphe^{re}tan : ihes ioan zoaz
et ' itxaslariak, beldu^r itxesa ,
itzuli beha^r du a^{ra}un - inda^{ra}z .

Minetan daukazu giza-gogoa ,
ainigma zaitugu adimenentzat .
Nor zara ? Ala bethi gezu^{re}zkoa ?
Gogorapen, ala irudi soil bat ?

O T S O

bortz izar' gori ortze-goian
eta basoan ez argirik
aztiak dagoz ikharatan
aztiaturik iku' hori

izar' gorion pentagraman
lo-hasman dautza bertz' izar'ak
baso-gerizan atzar' dira
otsoak eta gixotsoak

oihan-bidean ergelen bat
oihuz dihoa berantean
gizon soilari so zitazkon
otso ixilak giza-begiz

otso-ar' eta -eme latzak
giza-blasphema bihotzean
gauazko bide-ioilearen
haiduru ziran geldituak

oihan beltzeko bidesketan
ezin helduan zihoala
esku eihar'ez zuhain hilek
bahitu dute galtzerako

bortz oihuk eta bortz ausikik
gizerhaiteka egin dute
bainan ortze-go'i beltzagoan
izar' goriak itzal dira

I T X A S U N T Z I Z A H A R R A

zeiharika zethorén untzia
bide zehaztuak utzia
baleran zebilen uretan .
zurbil mariñelak zubitik
so ziran, ioan zoan urari

vela beltz zabalak haizeak
goizaldebako lui hezeak
ioiten ez zituen haboro
eta aráunak oro geldirik
aurera badarik zihoan

oihal beltz hiruki zabalak
aratseko aize iabalak
hunki ez arén, zerk zeroan
untzi hori arin aurera ?
mariñel ixilok dakite .

luálde adeitsu iathorén
albotiko bidez zethorén
arbatu gabea untzia .
lu' on iritsuak izanak
gatik, ez ziraden gelditu.

izaro soinudun ozenak ,
aitzinako iaingo zuzenak
heietan baitziran iauresten
marmorezko etxe goretan,
gelditu ordea ez ziran .

mendi, lur, elhurtza guritan
dizdir argizari zuritan ,
zahartu zuhuren egoitzak
bele iragarleen elhaide ,
han ere geratu ez ziran .

izaro heiotan neskatxak
ekhi - urhezko soi exkaxak
ondartzan zautzanak irikiz ,
mariñelen solhaz-gai bakhan ,
eta han geratu ez ziran .

ez irlak ekhitan, ez lurak
iaunzten zituenak elhurak ,
zekhusten guztitik deuz ere
gogarako ukhan ez zuten .
aitzina ioan ziran untzian .

untziak zekhartzan hil soak ;
hartaratu itxas - usoak .
begira bat eman ondoren
heganatzen ziran uruti
untziko gizonak uruinduz .

uraren lankaden azantzaz,
ez iguzkiaren erlantzaz
axoltzen ez ziran batere
hoik untzilariok : alpheitu
baitziran bideko aspeñaz .

untzia ber-oguz utzirik ,
bihotz-minak oro hezirik
hondamen haiduru zegozen ,
nahi enduregiz ez ausart
untzia suthautsez iauzaraz .

ZAKHUÍ HIL BATI

Zakhuí zahaí bat érekan
- nehork ez jakin nondik jinik -,
zakhuí bat zoan érekan
uretan gaini, arhin, hilik.

Ur luminós, hotx, garđenak
laztantzen zuten berhilkia;
sorgin-ofatz botz, leídenek
miresten zuten saíaskia.

Goizean goiz urera jin -
aíantzaleek agurízen zuten .
Noizean noiz, aíantzaleen
hamu tzaírek sistatzen zuten

^{ate}
Naxosiak itho zuñ
zabaí egin baitzñ zaharíuz:
Landeretan etzaten zan
landan behiak ezin zainduz.

Norat, eíadak, érekan
uraren hotxez konkoíturik,
norat ba, hoa itsurat,
hilaren hotzez gogoíturik ?

...../.....

Geldit' ezina ~~-nevermore-~~
behar' dukeka joan aitzina ?
Geldit' ezina, gaixo hor!
Azken - Egunerainokoan ?

Azken - Eguna urun da ;
hartara gabe hor lirina
hirotan ezeztatu zan...
... Haizeak darama urina .

Ur luminos, hotx, gardenek
ahantzi zuten saraskia ;
sorgin - ofatz botz, leardenek
etzuten orhoit berhilkia....

Nik soilik, arima baithan
usnatu nizun hil - usaina.
Nik soilik nire Eklésian
~~du~~ ohorat ~~du~~ hil anaia .

BEHIAK

"Sed perak e c'heller ober doueezed
ac'hamomp e broioù 'zo, ha doueezed
omp en varr." (*)
(Goule'hen PENNAOD "Prezegenn SvLakta")

Etxea eta etxeokak utzi ditut goizean eta sorhoetara doan naiz, nire heriko sorho musker baterat. Euria ari zan: beleak, hegalez ortzean, min zahar ahantzezinon ahanak ene gogoan kuatuz zabilizan .

Bainan musker zegoen belhara eta mardul, eta behi gorhail batzu hor ziranen alhan. Ni heltzean, gelditu ziran alhatzetik, niri so iañiz .

Bai eta neuk ere so egin nerauen behiei eta hunela hitz :

"Oi behiak, iainkosa geldioak ! ez hasare izan : ez nathorkizue sorho-bakhearen nahasterat...Mindun eta apha! bainathor, ez hasare izan... "

Eta behiak etzan ziran ene baranoan, geldi-geldirik eni begira.

"Behiok, -nik eran nerauen- edeñak zarete eta lakhet zait zuen begien bakhea. Ni, ordea, gizakhume bat baizik ez naiz: nekhatu naiz lanetan, min dut ene buruan, ene haragian..."

Behiek erantzun zerautaten :

"Zertarako, gizakhumea ? Luña borobil duk; inguratzen duk : egun batek emana, bertzeak zaramak. Bainan belhar muskeña gozo duk bethi... Etzan hadi belhar-gainean, atsedan har ezak ! "

"Behiok, -nik eran nerauen- edeñak zarete eta lakhet zait zuen zaien margoa. Ni, ordea, gizakhume bat baizik ez naiz: maitatu dut, min ukhan dut bihotzean..."

Eta behiek eni erantzun :

"Zer duk bihotza, gizakhumea ? Luña borobil duk ; luñeko sorho guzti orotan gozatz gaituk, baiki, gu eta gure ahizpak, iautzen gaitularik Iainko-zezenak. Bainan belhar gozo iatea, are gozoago duk.... Etzan hadi belhar gainean, atsedan har ezak ! "

...../.....

"Behiok, -eñan nerauen beñiz- edeñak zarete eta lakhet zait zuen edeña. Ni, ordea, gizakhume bat baizik ez naiz: heñiminez bizi nintzan homendik huñun, eta ikhas ! heñi haur delaña dut orain min..."

Behiak, aldiz, erantzuki :

"Zergatik min, gizakhumea ? Luña borobil duk; hemen eta han ba duk sorho muskeñik : hemen ala han belhar gozoa berdin gozo duk... Etzan hadi gurekin belhar-gainean eta a-se hadi ahanztez !"

"Behiok, -behiei eñan nerauen- edeñ eta zintzo zarete eta on da zuekin izaitea. Ni, haatik, gizakhumea naiz, gizadimen-minez mindun... Entzun ! nire anai bat lehen zuetaratu zan, iainko-gose, zuek iainkosak baitzarñate. Galdu ditut ene anaiak, galdu neure iainko-gosea.... Eñadazute : beñiz edireiterik eta anai-iai beñirik izanen deñ geroan ?"

Bainan behiak ez zuten aldi huntan erantzun : luze-luzaro begiratu zerabupaten eta heien begietan nabaritu nuen... iri-karkail handi bat. Orduan nik ere iri egin nuen behiekilak eta belhar-gainean etzan nintzan heiekilan... goizeko ekhiak, bere euri-he-doi-ohetik iaustirik, argitzen gindutela, belharñiak, behiak eta ni .

Zuberoan, 1951

(*) "Horengatik iainkosatzat gaduzkate heñi batzuetan, eta iainkosak gara egiaz ."

P A R A N O I A

Zurun gor bat kateetan dilindan
Arimako urkhabe goratik :
Euli beltzek botzezko firindan
Jan aren, hor dago bethi zutik .

Haur ilhortu baten ezurtxoak
Neska-lehen-odolaz nahasiz
Egiten du sofgin den atxoak
Maitagailu bat, on dena guziz .

Guk ordea zer dagigu hemen
Kantatuz goiz - arots Miserere,
Minak orhoit gure zahar amen

Eta zainduz, ez iakinik ere ,
-gure symbol eta gure itzal -

Urkhatu haur urkhabean martzal ?

L A R U N B A T - A R Á T S

Ostatu - terrazetan
(giro da gauñ),
haur legunak lagun, senhar-emazteak
erdi lo, erdi so
-hirihanditarzunez gainezka soak-
iragaileei ongi-nahian ;
botoiletan
thu margodunak dizdir ederkiro .

Heñi-baratzetan ,
neskatxa txukunak solhaz zintzo
dute heñi-baratzetan !
bainan ai ! uda-zaiak uratzen zaizkie
agure lizun, begi zorotzen behatzetara

Gautar poeta batek, urkhamendi bilha,
neurthotsetan kantatzen dio gauari ;
hordi bat dela uste izaiteko da .

Gautzenago delarik
itzal-zokhoetan
garatzen,
loratzen
dira
paiderasten maitarzun minkorak .

Nonbait
markisa xahar bat mahain-ingurarazlea
iratxo lotsatuak bil eta hil
ari da, atso zataña !

Hoteletako
hirur ehun frankotako geletan
atsegin-neska nekhatuak
mokoka zekhenekin ,
mokoka zikhinekin ,
belhaunetako minez auhenka ,
zer bizitza ...

Larunbat - arratsa da,
behaña zan ;
astegunetako langile bizkorak
kinemataratzen dira taka-taka
edo oheetara, ikhuzi ondoren
bihar igandeko
oinak, soinak eta oro
ur-ziripen burbul zolietan ;
ongi da ! Jainkoak benedikata begira ditzala
bihar arteo beren oheetan
lo-zurungan eta -nahiz ez goseak-
ezkur-amets bat dutela .

Larunbat-aratsa da :
Parise, puta zahar, lotara doa
ni ene bai

K A M A - G O L I

(Motzaileen hizkuntzan)

Hiretzat goli kherautzen dinat
efomeetako gazin mindroa
ene muirako mandro londona
mol loloena ene khertsiman.

Hire dui ankhai bāro, kalook
pekhautzen nine kamatze-iakaz
phiria hautsiz efomenitzat
letu hindudan latziaz geroz .

Zoan mitxaia panintinora ,
pindro dantzariz texalitzen zan ,
haize khilakoz txokiak upre....
- ni hari kuti, dibilotua .

Zethoren txaiia pindro dantzariz
panin parnoa paninekoan
dekhatu muen dibezi hartan :
dekhatu-eta kamatu muen .

Khorean txiautu nintzan harekin ,
erantzi nauzkon haren trin sokak ,
erantzi naukon gata parnoa
txaribelerat eramaitean .

...../.....

Txaribelean zaguatu dutiok
zautzekorik gabe latzian ,
latzi guztion dutik gabea.....
..... pekhautu nintzan kamatzè-iakaz .

Heure kamatzez pekhautzen niagon ,
kalo-kastako neure mindroa ,
ene mol lolo eta mandroa ,
ene latzien duta haizen hi !

